

## Aukerazko erregimena Europar Batasuneko beste estatu batzuetan egoitza duten zergadunentzat

### Fitxa interneten bistaratu

## INFORMAZIO OROKORRA

### Helburua

Europar Batasuneko estatu kideetako egoiliarrei hautazko araubidea aplikatzea errentak Gipuzkoan lortzen dituztenean (baldintza jakin batzuk beteta), zerga Gipuzkoan ordaindu dezaten Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Gipuzkoako araudiaren arabera.

[Informazio gehiago](#)

### Nork tramitatzen du

- OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA
- Zerga Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia
- Zuzeneko Zergak Kudeatzeko Zerbitzua

### Nori zuzenduta

Espainia ez den Europar Batasuneko estatu kide batean egoiliar direla frogatzen duten pertsona fisikoek, baldintza jakin batzuk betetzen badituzte. Erregelamenduz paradisu fiskaltzat kalifikatuta dauden herrialde edo lurraldeetan egoitza duten zergadunei ez zaie inoiz ere aplikatuko hautazko araubidea.

### Baldintzak

Hautazko araubidearen aplikazioa eskatu ahal izateko, ondorengo [baldintzak](#) bete behar dituzte zergadunek.

### Zenbatekoa

Zergadunak zergaldian lortutako [errenta osoa zehazteko](#), zergaldi horretan lortutako errenta guztiak kontuan hartuko dira, non sortu diren eta ordaintzailearen egoitza non dagoen begiratu gabe.

### Balorioz eta baremazio irizpideak

Zerga Administrazioak zehaztuko du [Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zein zenbateko dagokion](#) zergadunak hautazko araubidearen aplikazioa eskatu duen zergaldiari.

### Ordaintzeko modua

Administrazioak zergadunari [eskatu](#) diezaioke beharrezkotzat jotzen dituen frogagiri guztiak aurkez ditzala hautazko araubidea aplikatzeko baldintzak betetzen direla frogatzearen.

## HASIERA ETA ESKAERA

### Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

[Europar Batasuneko egoiliarrei hautazko araubidea aplikatzeko eskaera](#)

### Eskaera moduak

- » Internet
- » Presentziala

### Internet bidezko eskaera

Formularioa internet bidez aurkeztea [Gipuzkoataritik](#). Sinadura elektronikoa edo gako operatiboa beharko da.

Gipuzkoatariko Ogasuna eta Finantzak atalean beste eskari batzuekin batera, KOMUNIKAZIO, ESKAERA ETA ERREKERIMENDUEN ERANTZUNAK azpiataleren barruan.

### Tramitazio elektronikorako beharrezko identifikazioa

- » Ziurtagiria eta B@KQ

### Zuzeneko arretarako bulegoak

[Herritarren Arretarako bulegoak](#)

Hautazko araubidera biltzeko [eskaera orria](#) aurkeztuko da, bidezko frogagiriak erantsiz.

## EBAZPENA

---

### Ebazteko gehienezko epea

6 hilabete.

### Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

### Honen bidez jakinarazten da

» Ohiko postaz      » Telefono bidezko komunikazioa

## ARAUDIA

---

[16/2014 Foru Araua](#), abenduaren 10ekoa, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergarena.

[11/2016 Foru Dekretua](#), maiatzaren 17koa, Ez-egoiliarren Errenta Zergaren Erregelamendua onartzen duena.